

## BESTELAKO XEDAPENAK

### EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

## 4492

*AGINDUA, 2022ko urriaren 13koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez agindu hau aldatzen baita: 2022ko ekitaldirako Ezkerralde Hedatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko urteko batezbestekoa baino % 10 handiagoa edo hortik gorakoa den langabezia-tasa duten beste udalerrri batzuetan ekoizpen-inbertsioa egingo duten eta, beraz, gune horietako lehiakortasun-hobekuntza eta garapen ekonomikoa eragingo duten enpresentzako dirulaguntza-programa arautu eta deitzen duen agindua. Indartu 2022 Programa.*

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko ekainaren 8ko Aginduaren bidez arautu eta deitzen da 2022ko ekitaldirako Ezkerralde Hedatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko urteko batezbestekoa baino % 10 handiagoa edo hortik gorakoa den langabezia-tasa duten beste udalerrri batzuetan ekoizpen-inbertsioa egingo duten eta, beraz, gune horietako lehiakortasun-hobekuntza eta garapen ekonomikoa eragingo duten enpresentzako dirulaguntza-programa. Indartu 2022 Programa. (2022ko ekainaren 23ko EHAA, 121. zk.).

Prozeduraren kudeaketak eta Indartu 2022 Programari esleitutako aurrekontu-baliabideak optimizatzeko xedearekin, Industriaren eta Energia Trantsizioaren zuzendariaren proposamenez, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeak eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuak emandako ahalmenak erabiliz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Agindu honen 15. artikulua aldatzea: Agindua, 2022ko ekainaren 8koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautu eta deitzen baita 2022ko ekitaldirako Ezkerralde Hedatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko urteko batezbestekoa baino % 10 handiagoa edo hortik gorakoa den langabezia-tasa duten beste udalerrri batzuetan ekoizpen-inbertsioa egingo duten eta, beraz, gune horietako lehiakortasun-hobekuntza eta garapen ekonomikoa eragingo duten enpresentzako dirulaguntza-programa. Honela idatzita geratuko da:

«15. artikulua.– Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea.

1.– Administrazioak laguntzen ordainketa egin ahal izateko, onuradunak administrazio honen hirugarrenen erregistro egokian jasota egon beharko du. Alta emateko edo hirugarren interesdunaren datuak aldatzeko, hirugarrenen erregistro elektronikora jo beharko da, honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

2.– Dirulaguntzaren ordainketa Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeen eta itzulketen araubidea xedatzen duen abenduaren 17ko 698/1981 Dekretuan ezarritakoaren arabera izango da, eta ordainketa hori artikulu honetan deskribatutako moduan egingo zaio enpresa onuradunari.

a) Lehen ordainketa aurreratua izango da, emandako dirulaguntzaren % 5koa, eta behin interesdunak laguntza onartu ondoren egingo da, edo emateko ebazpena jakinarazi eta hamabost eguneko epean, berariaz uko egin ezean.

b) Gainerako ordainketak egin dakizkion, enpresa onuradunak honako apartatu hauek bete beharko ditu «Nire karpeta» aplikazioaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan, <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta> web-orrian:

– Dirulaguntzaren xede den enpresak gauzatutako inbertsioen adierazpena.

– Inbertsioaren gastuen eta zenbatekoen zerrenda sailkatua (BEZa kanpo) barne hartuko duen fakturen koadroa.

– Adierazpen bat, zeinaren bidez adierazten baita ezen, laguntza eman ondoren, onuraduna ez dagoela berreskuratzeko agindu baten mende, Europar Batasuneko Batzordeak laguntza bat legez kanpokoa eta merkatu bateratuarekin bateraezina dela erabaki izanaren ondorioz.

– Enpresaren baliabide propioen prezioaren, jatorriaren eta aplikazioaren aitortzea, diruz laguntzeko moduko inbertsioaren zenbatekoaren % 25 edo gehiagokoei buruzkoa.

Aitortutako inbertsioak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Industria Administrazioaren lurralde-ordezkaritzek ikuskatuko dituzte. Aurkeztutako fakturek bat etorri beharko dute lehen aipatutako fakturen koadroan zehaztutakoekin. Fakturak ikuskatzaileen esku egon beharko dira, eta, fakturretan, jaulkitze-dataz gain, hartzekodunaren identifikazioa jaso beharko da (erakunde edo enpresa hornitzailearen IFZ eta izen soziala), bai eta ordainagiriak ere, zenbatekoa (BEZa banakatua) eta ordainketa-data adierazita. Horrez gain, beharrezkotzat jotzen den dokumentazio eta informazio osagarri guztia eskatu ahal izango da, aitortutakoa egiaztatzeko.

Bigarren ordainketa egiteko, dagokion ikuskapena eginda, kontuan izango da aurrerapenez jasotakoa.

3.– Laguntza ordaindu baino lehen, aurreko paragrafoan adierazitako alderdiak egiaztatu ostean eta Industriaren eta Energia Trantsizioaren Zuzendaritzako langile teknikoek sinatutako ordainketa-proposamenaren txostena aztertu eta gero, Zuzendaritza horretako titularrak ebazpena emango du. Ebazpen horretan, enpresa onuradunari ordaindu behar zaion zenbatekoa (osoa edo partziala) adieraziko du. Dirulaguntzak, gehienez ere, urtean bi aldiz ordainduko dira. Ordainketa horien zenbatekoa justifikatutako inbertsioekiko proportzionala izango da.

4.– Inbertsioak egiteko epea amaituta, enpresak bi hilabete izango ditu inbertsioei buruzko azken aitortzea aurkezteko. Epe hori igarota, egindako inbertsioak ebaluatuko dira, ordura arte aurkeztutako inbertsioen eta gastuen aitortpenetan oinarrituta. Dirulaguntzak kudeatzeko zuzendaritzak laguntzaren azken likidazioaren txostena egingo du, justifikatutako inbertsioen partidari buruzkoa.

5.– Enpresa batek laguntza bidegaberen bat badu, zeinaren ganean Europako Batzordeak kontrako erabakia hartu baitu dirulaguntza eman ondoren, eta hura berreskuratzeko agindu, eta laguntza hori itzuli ez bada, azken ordainketa-eskabidearekin batera aurkeztu beharko du itzulketa ez egitearen justifikazioa. Izan ere, programa honen esparruan emandako laguntza ez da ordainduko, harik eta aipatutakoa justifikatu arte.

6.– Emandako laguntza ordaindu aurretik, enpresa onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituela egiaztatuko da, baita dirulaguntzak itzultzeagatik betebeharrak ordaindu dituela ere, eta ez da ordainketarik egingo betebeharrak horiek betetzen ez baditu».

## AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honen aurka, interesdunek berraztertze errekurtsoa jar diezaiokete Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, argitaratu eta hurrengo egunetik zenba-

2022ko urriaren 19a, asteazkena

tzen hasita hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita bi hileko epean.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 13a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.